

JARDUKETA IZENA	Aldaketa geomorfologikoak ibai-ibilguan (higadura, garraio eta sedimentazio prozesuak), lehengoratuak tartetean.
	D1 Jarraipen geomorfologikoa
Zer KBetan edo Kontserbazio Bereziko Eremutan dihardugun:	
	Leizaran Ibaia KBE eta Bidasoa Ibaia KBE
LOTURA NATURA 2000ekin	
	Proposatutako jarraipen geomorfologikoa bi KBEak Kudeatzeko Planetan aurreikusitako helburuarekin dago lotua: Helburu operatiboa: 1.1.2. Korridore urtarrean dauden oztopoak iragazkortzea.
KBEko funtsezko elementu onuradunak	
	Efektu eta prozesu horiek zuzenean daude funtsezko elementu hauekin lotuta: -"Ibai Sistema", "Ibai Habitata", "Izokin arrunta, kolaka, lanproia eta burtaina", guztiak ere Bidasoa Ibaia KBEri dagokiona.
JARDUKETA LEKUA ETA UDALERRIAK:	
Bera, Lesaka	
Data	
2016tik 2020ra	
Aurrekontua	
72.190 € (Nafarroan)	
Proiektuaren ekintza loturikoak (jarraipenak)	
	Honi loturiko kontserbazio ekintzak dira nola halako munta duten presa gaindiezinak kentzea proposatzen dutenak.
Lanaren deskribapena - HELBURUAK	
	Jarraipen ekintza honen helburua da proiektuko ekintzek ukituriko tartetako higadura, garraio eta sedimentazio prozesuen bilakaera ebaluatzea.
Lanaren deskribapena - AURREKARIAK	
	Proposatu diren kontserbazio lan batzuen xedea da ibaiaren berezko prozesuak eta dinamikak lehengoratzea; beraz, espero da ibilguaren osiera aldaketa nabarmenak gertatzea (barra, ibaiertzak, osinak, ohea...).
	Aurreko esperientzietan, beste proiektu batzuei esker, ibaiaren berezko prozesu eta dinamikak bilakaera dokumentatu da, eta era berean, ondorioak atera dira aldaketaren norainokoaz eta abiaduraz; ondorio horiek oso erabilgarriak izan dira beste lehengoratze lan batzuk diseinatzeko; aurreikusitako ekintzak diseinatzeko, adibidez.
Lanaren deskribapena - HASIERAKO ETA EGUNGO EGOERA (C ekintzak)	
Lanaren deskribapena - AURREIKUSITAKO LANAK/JARRAIPENEN DESKRIBAPENA	
	Jarraipen ekintza hau beharrezkoa da: - Oztopo handiak ezabatzeko neurriek (Endarlatsa, Bera eta Ituren, Nafarroan) ibaiaren berezko prozesu eta dinamiketan dituzten ondorioak ikusteko, bai Bidasoa Ibaia KBEan, bai Ezkurra ibaian (Ituren).

- Ekintzen gauzapena aldatu beharra edo neurri zuzentzaileak hartu beharra baloratzea.
- Ekintzen irismena ikustea bai espazioari dagokionez (ukituriko tartea), bai denborari dagokionez, eta era berean, zer eragin duen KBeko habitat eta espezieentzat.

Ekintza honen planteamenduak oinarri du alderatzea hasierako egoera edo lanen aurrekoa eta bukaerako egoera edo lanen ondokoa, lan edo fase bakoitzerako.

Argi eta labor azaltze aldera, ekintzak aztertu nahi du zer-nolako aldaketak gertatuko diren ibilguan eta inguruetan presak eraitsi ondoren. Presak eraikitzearen ondorioz, ibaiaren dinamika aldatu zen, ur bilduko eremuak sortu baitziren, presek ibaiaren malda eta uraren abiadura aldatzen baitituzte; hau da, eremu batean, ibaiaren berezko dinamika geldiarazi da, eta ondoriozko habitatak ez du natur balio handirik. Munta txikikoak iduri duten arren, erran behar da Endarlatsako eta Berako presek eragindako ur bildu bakoitzak 40.000 m²-ko azalera duela, gutxi gorabehera; hau da, sedimentazio eremu garrantzitsua da, eta horren ondorioz, ibai-tarte horretan leudekeen hainbat habitaten konplexutasuna sinpletu da. Jarraipen ekintzak helburu du aztertzea noiz eta nola gertatuko diren aldaketak; izan ere, presa eraistearen ondotik, ibaiak bere ibilgua modelatzeko gaitasuna berreskuratuko du.

Nafarroan eraitsi beharreko presetan eginen den jarraipen geomorfologikoa honako alderdi hauen azterketan laburbildu daiteke:

Presen eraispenaren jarraipen geomorfologikoa egitea, "Endarlatsako", "Berako zentraleko", "Iturengo arrain-haztegiko" presetan egin ere, guztiak ere Bidasoren arroan kokatuak. Jarraipena egin aurretik, lehenik, ibai bakoitzaren egungo patroia hidrologikoa ezaugarritu behar da, eta nola bilakatu den azken hamarkada hauetan, ibai bakoitza ezaugarritzen duten emariak ezagutzeko, emari horiek presaren eraginpeko tartearen geomorfologia eraldatuko baitute (hau da, presa eraitsitik gora eta beheara dagoen ur bilduen eta uren eremua). Presa eraitsi bakoitzean, aldaketa hauek aztertuko dira, eraispenaren ondotik:

- a. Ibaiaren luzetarako profilaren eta tokiko malden azterketa.
- b. Zeharkako sekzioen azterketa. Zeharkako sekzio batzuen forma ebaluatuko da presen eragin eremuan, ibilgua jarduketa-eremuetan nola bilakatzen den irudikatzea ahalbidetzen duena.
- c. Ibai-forma nagusien formaren eta bilakaeraren azterketa. Ebaluatuko dira zer-nolako aldaketak izan diren presa bakoitza eraitsi aurretik eta ondotik ibaian zeuden barra, uharte eta intereseko beste edozein ibai-formatan.
- d. Azterketa granulometrikoa. Ohean, bai eta barra eta uharteetan ere, aurkituriko sedimentazio-partikulen formaren eta tamainaren azterketa egingen da. Helburua da jakitea nola aldatzen den sedimentazio-erantzuna eta sedimentuen osaera, gertatuko den ibai dinamika berriaren aurrean.
- e. Garraio solidoaren azterketa. Tartean dagoen garraio solidoa aztertuko da, eraispenen aurretik eta ondotik.
- f. Higadura eta sedimentazio prozesuen azterketa. Ibai-tarteetan atzematen diren higadura eta sedimentazio mekanismoak aztertuko dira eraispen bakoitzaren aurretik eta ondotik.
- g. Higadura eta sedimentazio bolumenak ur bilduko eremuan zein diren finkatuko da eraitsi aurretik, eraitsi eta berehala, eta ondoko urteetan, goi emariak edo ur gorraldiak gertatu ondotik.


Jarraipenean biltzen diren datu guztiekin, horien interpretazio ekologikoa eginen da. Aldaketa geomorfologikoak prozesu ekologikoen ikuspegitik aztertu eta interpretatuko dira, ibaiaren ingurumen eta lehengoratzeko ikuspegitik errazagoak izan daitezzen ulertzeko edo aplikatzeko, eta kontuan hartuta presen eraspenak zer-nolako eragina izanen duen ibai-habitaten egoeran eta banaketan. Zehazki, aztertuko da zer aldaketa eragin diren arrainen espezieentzat aztertutako tartean haien habitagarritasunari buruz, eta ibaiko landarediarentzat.

Jarraipena hasteko, presen 3 tarteak ezaugarrituko dira, eta presak eraitsi ondoren, **urteroko jarraipenak** egingen dira. Azkenik, **bukaerako egoera** zein den ezagutuko da, behin lan guztiak egindakoa eta, gutxienez, eraispenetik 2 urte iragandakoan.

JUSTIFIKAZIOA Zer lortu nahi dugu? – ESPERO DIREN EMAITZAK

Emitza hau espero da:

- Oztopo handiak ezabatzeko neurriek (C6, C7 eta C8) ibaiaren berezko prozesu hidromorfologikoetan dituzten ondorioak ezagutzea, bai "Bidasoa Ibaia" KBEan, bai Ezkurra ibaian.
- Hasierako eta bukaerako egoeren gaineko txostenak egitea.



JARDUKETA IZENA	
Lehengoratzeko ekologikoa Bidasoa ibaiaren arroan	
C10 Ibaiertzak lehengoratzeko	
Zer KBetan edo Kontserbazio Bereziko Eremutan dihardugun:	
Baztan Ibaia eta Artesiagako Erreka KBE, eta Bidasoa Ibaia KBE	
LOTURA NATURA 2000ekin	
Ibaiertzak lehengoratzeko proposamenak bi KBEak Kudeatzeko Planetan aurreikusita dauden helburuak betetzen ditu: Helburu operatiboak: 1.1.1. Ibai bazterretan, landaredi naturaleko zerrenda etengabe bat berreskuratu eta kontserbatzea, funtzionaltasun ekologikoa duena. 2.1.1. Ibai habitaten eremua kontserbatu eta handitzea. 2.1.2. Flora espezie inbaditzaileak gutxitzea. 2.1.3. Ibai habitatei loturiko intereseko faunaren eta floraren espezie batzuk hobeki ezagutzea.	
KBEko funtsezko elementu onuradunak -	
Ekintzak nagusiki lehentasunezko habitat honi eginen lioke mesede: "91E0* haltzadia, <i>Alnus glutinosa</i> eta <i>Fraxinus excelsior</i> espezieek osaturiko baso alubialak, eta era berean, bi KBEetako ibai izaerako Batasunaren intereseko espezie hauei: izokin arrunta (<i>Salmo salar</i>), kolaka (<i>Alosa alosa</i>), igaraba (<i>Lutra lutra</i>), bisoi europarra edo ur-ipurtatsa (<i>Mustela lutreola</i>) eta muturluze piriniotarra (<i>Galemys pirenais</i>). Amuarrainari (<i>Salmo trutta</i>) ere eginen lioke mesede. Batasunaren intereseko espeziea ez bada ere, funtsezko elementu bat da eta ekosistema salmonidoetako espezie bereizgarria, proiektuaren xede diren horietakoak bezalaxe.	
JARDUKETA LEKUA ETA UDALERRIAK:	
Baztan, Bertizarana, Doneztebe, Elgorriaga, Etxalar, Sunbilla, Igantzi, Lesaka, Bera (87 eta 91 fazeriak)	
Data	
2016tik 2019ra	
Aurrekontua	
116.000 €	
Lanaren deskribapena - HELBURUAK	
Ibai-korridorearen jarraitasun ekologikoa hobetzea eta ibai-habitaten kontserbazio-egoera hobetzea.	
Lanaren deskribapena - AURREKARIAK	
"Baztan Ibaia eta Artesiagako Erreka" eta "Bidasoa Ibaia" KBEak Nafarroako ipar-mendebalaren muturrean daude; bietan ere badira habitat naturalak eta Nafarroako dibertsitate biologikoaren espezie adierazgarriak. Lehengoratzeari dagokionez, esku-hartzeko aukerarik handieneko tarteak identifikatu dira, eta halaber, lehentasunik handienekoak, "Bidasoa ibai Nafarroan ekologikoki lehengoratzeko Plana" ekimenari esker, Europako Ibai Lurraldeak 2007-2013 (Interreg IV B SUDOE) proiektuaren baitan.	
Lanaren deskribapena - HASIERAKO ETA EGUNGO EGOERA (C ekintzak)	
Honatx aurreikusitako lanak: ibaiertzak eta ezpondak egonkortzea, higadura kontrolatzea bioingeniaritza teknikak erabiliz; espezie exotikoak mailaka	

ezabatzea (makalak, platanondoak...); lubetak berriz landarez hornitzea eta ibaiertzetan landaketak egitea, bertako espezieak erabilita (haltzak, lizarrak, hurritzak). Ibilgua dibertsifikatzea, ibaiertzari edo ibaiko oheari finkaturiko egiturak paratuta.

32 km aztertu dira ibaian, eta hainbat lehengoratzeko lan egiten dira tarte jakin batzuetan, honakoetan:

TARTEA: BAZTAN 6 (Elizondotik Oronozeraingo)

Egungo egoera: ibaiertzeko landaredia ongi garatua dago, baina espezie exotikoen kopurua nabarmena da; itzal-platanondoak, bereziki. Basoaren jarraitasuna on samarra izanik ere ibaian barna, tarte batzuetan erabilerekin ibaiertzeko landarediaren espazioa hartu dute. Gainera, ibaiertzetan ugariak dira errepeide, bide eta abarrekin loturiko defentsak (hormak...).

Jarduketa proposamena:

Lehengoratzeko morfologikoa eta higadura kontrolatzea Askape alderdian (harrobia), Arraiozen, Lekarozen eta Gartzainen: Arras higatuak dauden 4 tartetan jardutea proposatu da, ibaiertza birprofilatuz, landare-lurra jarritz, eta geo-sare gogorra paratuz. Ondoren, zuhaixka-espezieak landatuko dira edota espezie salikazeoen adaxkak (ezpondaren azalera: 0,42 ha. Ibaiertz ukituaren luzera, guztira 370 m).

TARTEA: BIDASOA 1 (Oronoztik Donezteberaingo)

Egungo egoera: ibaiertzeko basoa oso desegituratua dago, batez ere espezie exotikoek eraginda; platanondoak eta beste espezie inbaditzaile batzuk dira, batez ere. Bestalde, ibaiertzak gaizki loturik daude ibilguarekin, tartearen zatirik handienean ibaia hormen bidez bideratua dagoelako.

Jarduketa proposamena:

Espezie exotikoak mailaka ezabatzea (makalak, platanondoak) eta bertako espezieak landatzea, hala nola haltzak, lizarrak eta hurritzak.

Lubetak berriz ere landarez hornitzea Legasan: lubetan sahats adaxkak landatzea proposatzen da tarte batean (135 m²).

Ibaiertzeko espezieak Oronoz Mugairin landatzea: Ibaiertzeko tarte batean bertako landaredia landatuko da (0,18 ha)

TARTEA: BIDASOA 2 (Doneztebetik Sunbillaraino)

Egungo egoera: Unitate honen barnean, nekazaritza eta abeltzaintza erabilera nabarmena dago, eta hori zuzenean dago lotua ibaiertzak hondatzearekin. Toki horietan, ibaiertzeko basoa murriztu da. Bestalde, ibaiaren ezkerrean pista hormigonatu bat dago, eta eskuinaldean, berriz, N-121 errepeidea, eta horren ondorioz, ibaia hertsaturik doa, eta horrek kaltea eragiten dio ibaiertzeko basoaren zeharkako konektibitateari.

Jarduketa proposamena:

Sunbilla ibaiertzeko espezieak landatzea: ibaiertzeko espezieak hainbat tartetan landatuko dira, bai eta bi bazterretan ere (1,14 ha)

TARTEA: BIDASOA 5 (Etxalaritik Beraraino)

Egungo egoera: Eremu homogeneo honen barruan, hainbat tartetan belazeak ibai-bazterreraino bertaraino iristen dira, eta horren ondorioz, etenaldi nabarmenak daude ibaiertzeko basoa osatzen duen landaredian. Bestalde, atzematen da ibai-ibilguak nolabaiteko higadura duela, ziurrenera tartean dauden oztopoek eraginda.

Jarduketa proposamena:

Lehengoratzeko morfologikoa eta higadura kontrolatzea Etxalarren (NA-1210 ezponda): arras higatua dagoen 100 metroko tarte batean jardutea

proposatu da. Ibaiertza birprofilatu, landare-lurra hara eraman eta geo-sare gogor bat paratu beharko da. Ondoren, zuhaixka-espezieak landatuko dira edota espezie salikazeoen adaxkak (0,18 ha)

TARTEA: EZKURRA 5 (Doneztebe. Ezkurra ibaiaren azken tartea, hau da, Bidasoarekin elkartzen denetik Ezpelura errearen urak hartzen dituen lekuraino).

Egungo egoera: Unitate homogeen honen ezaugarria da ibaiertzak gaizki loturik daudela ibilguarekin, ia tarte osoan ibaia bideratzeko hormak daudelako. Gainera, ibilguaren ondoko azaleretan ez dago behar bezalako landaredi-orlarik, eta horren ondorioz, ez dago ibilguan itzalik edo oso itzal gutxi dago.

Jarduketa proposamena:

Ibai ibilguaren ohea dibertsifikatzea deflektoreak sortuz (tamaina handiko zura), habitaten aberastasuna sustatzeko, eta horrela hainbat arrain-espezieren harrera areagotzeko. 850 m inguruko tarte batean jardungo da, Ezpelura errearen bukaeran, hirigunetik goiti Bidasora iritsi arte, non zurezko hainbat egitura paratuko baitira (8-10 ale), ibai bazterrei edo ibilguaren oheari finkatuta.

TARTEA: TXARUTA 2 (Donamaria. Txarutako errearen tartea, urak Ezpelura erreara isurtzen dituenetik gora bi kilometrotan).


Egungo egoera: Unitate honen barnean handia da nekazaritza eta abeltzaintza erabilera. Horren ondorioz, ibaiertzeko basoa arras aldatua dago ia tarte osoan, eta hainbat lekutan, galdu da. Horren ondorioz, intsolazioa oso nabarmena da ibai-ibilguan.


Jarduketa proposamena:


Lehengoratzeko morfologikoa eta higadura kontrolatzea: tarte txiki arras higitu batean jardutea proposatu da. Ibaiertza birprofilatu, landare-lurra hara eraman eta geo-sare gogor bat paratu beharko da. Ondoren, zuhaixka-espezieak landatuko dira edota espezie salikazeoen adaxkak (140 m²). Bigarren tarte batean (50 m-ko luzera) jardutea proposatu da, ezpona adar-estaldura baten bidez lehengoratzeko (175 m²) 3 tartetan ibaiertzeko espezieak landatuko dira, bai eta bi ertzetan ere (0,33 ha)


JUSTIFIKAZIOA Zer lortu nahi dugu? – ESPERO DIREN EMAITZAK


Ibaiertzak lehengoratzearen ondorioz, honako emaitza hauek lortzea espero da: 6.400 m² lehengoratzeko dira ibaiertzetan; 30-50 ale aloktono botako dira; 135 m²-tan lubetak landarediz hornituko dira; ibaiertzeko espezieetako 1.800 zuhaitz autoktono landatuko dira; ibaiko ohea dibertsifikatzeko 8 deflektore paratuko dira.














JARDUKETA FITXA. IREKIBAI PROIEKTUA: Ibai irekiak: Nafarroak eta Gipuzkoak partekatzen dituzten ibaien konektibitate eta habitaten hobekuntza.

JARDUKETA IZENA: Bisoi amerikarra kontrolatzea
C11 Bisoi amerikarra kontrolatzea
Zer KBetan edo Kontserbazio Bereziko Eremutan dihardugun:
'Bidasoa Ibaia' KBE, 'Baztan Ibaia eta Artesiagako Erreka KBE, 'Bertizko Jaurerria' KBE, 'Artikutza' KBE eta 'Belate' KBE.
LOTURA NATURA 2000ekin
Ekintza KBEak Kudeatzeko Planen helburu operatibo hauen baitan kokatua dago: 2.1.2. Espezie exotiko inbaditzaileen presentzia murriztea 2.1.3. Ibai habitatei loturiko dauden intereseko fauna espezie batzuen ezagutza eta kontserbazioa hobetzea.
KBEko funtsezko elementu onuradunak - REASONS
Bisoi europarra (<i>Mustela lutreola</i>) Batasunaren intereseko espeziea da, eta mehatxu egoera larrian dago toki guztietan; bisoi europarraren gaineko mehatxurik handiena da haren populazioa urritu, lekualdatu eta ezabatu dela, bisoi amerikarraren kolonizazioaren ondorioz (Neovison vison). Gaur egun, bisoi europarraren Nafarroako Kantauri aldeko arroetan badira bisoi amerikarrarekiko kontaktuan dauden eremuak.
JARDUKETA LEKUA ETA UDALERRIAK:
Nafarroako Kantauri aldeko arroa, Gipuzkoarekin partekatzen ditugun ibaiak (arro horietako udalerri guztiak)
Data
2016 - 2019 (Bisoi amerikarra lau kanpainetan kontrolatzea, udaberrian eta udazkenean)
Aurrekontua
100.350 €
Proiektuaren ekintza loturikoak (jarraipenak)
Lanaren deskribapena - HELBURUAK
Ekintzaren helburua da bisoi amerikarraren (<i>Neovison vison</i>) presentzia eragozteko edo murrizteko Nafarroan, Batasunaren intereseko bisoi europarra (<i>Mustela lutreola</i>) espezieari kalterik ez eragiteko, mehatxu egoera larrian baitago. Horrez gain, informazioa ere eskuratuko dugu bi espezieek jarduketa eremuan duten banaketaz eta ugaritasunaz.
Lanaren deskribapena - AURREKARIAK
Nafarroako Kantauri aldeko ibai arroetan, bisoi amerikarra ager daiteke, Gipuzkoan eta Frantziako hego-mendebaldean (Pirinio Atlantiarreko Departamentuan) dauden populazioetatik etorruta. Izan ere, dagoeneko Bidasoa ibaian, Aritzakunen, Urritzaten, Orabidean eta Luzaide errekan dokumentatu da, bai eta Nafarroako Mediterraneo isurialdeko beste ibai batzuetan ere.
Lanaren deskribapena - HASIERAKO ETA EGUNGO EGOERA (C ekintzak)
Plataformak ezarriko dira bisoi amerikarra atzemateko, eta gero, tranpak. Kalkuluen arabera, ibai-tarteetan, 114 km arakatu beharko lirateke, bisoi

amerikarra atzemateko, eta hala bada, ezabatzeko, guztira 114 plataforma jarrita (plataforma bat, km bakoitzeko), betiere honela banatuta:

- Bidasoa ibaia, 33 km; eta ibaiadarrak, 29 km
- Baztan ibaia, 22 km; eta Artesiagako erreka, 8 km
- Urumea ibaia, eta ibaiadarrak, 9 km
- Leitzaran ibaia, 5 km
- Araxes ibaia, 8 km

Plataformak lehenik eta behin erabiliko dira bisoi amerikarra atzemateko, eta ondoren, atzematen bada, harrapatzeko. Plataformen diseinuari esker, tranpa plataformaren gainean jarriko da, baina aurrez (jarraipen aldietan) oinatzak erregistratzen badira, eta aldameneko plataformetan ere bai.


Harrapatzen diren bisoi amerikarrak metodo odolgabeen bidez hilko dira. Gainerako espezieak harrapaketa lekuetan bertan askatuko dira. Ekintzak datu asko eta asko eraginen ditu; guztiak ere datu-base batean bilduko dira, emaitzak errazago aztertzeko.

Lanaren deskribapena – **AURREIKUSITAKO LANAK/JARRAIPENEN DESKRIBAPENA**

JUSTIFIKAZIOA Zer lortu nahi dugu? – ESPERO DIREN EMAITZAK

Emitza hauek espero dira:

- 114 plataforma finko paratuko dira
- Lau tranpa kanpaina egingen dira, 2016., 2017., 2018. eta 2019. urteetan (udaberrian eta udazkenean)
- Bisoi europarra Batasunaren intereseko espeziearen eta bisoi amerikarra espezie exotiko inbaditzailearen egoerari buruzko informazioa eskuratzea.



JARDUKETA IZENA: Muturluze piriniotarra, haren habitataren eta populazioen kontserbazio egoeraren bilakaera.	
D6 Muturluze piriniotarraren jarraipena egitea	
Zer KBetan edo Kontserbazio Bereziko Eremutan dihardugun:	
'Baztan Ibaia eta Artesiagako Erreka KBE, 'Belate' KBE", "Bidasoa Ibaia' KBE eta "Leitzaran Ibaia" KBEa.	
LOTURA NATURA 2000ekin	
Ekintza KBEak Kudeatzeko Planen helburu operatibo hauen baitan kokatua dago:	
7.1.1. Muturluze piriniotarraren populazioaren egoera ezagutzea.	
KBEko funtsezko elementu onuradunak - REASONS	
Muturluze piriniotarra Batasunaren intereseko espeziea da, eta harekin dago jarraipen ekintza hau zuzenean lotua. Azkar etorri da gainbehera bere banaketa eremu osoan. Haren kontserbazio egoera baloratzeko, ezinbestekoa da populazioen tamainaren jarraipen etengabea egitea, edota etengabe jakitea zenbat ale diren, etab.	
JARDUKETA LEKUA ETA UDALERRIAK:	
Baztan, Malerreka	
Data	
2015-2020	
Presupuesto	
101.800 €	
Proiektuaren ekintza loturikoak (jarraipenak)	
Espeziearen beharrak direla eta, loturarik handiena duten ekintzak dira nolabaiteko munta duten oztopoak ezabatzea, bai eta ur bilduko eremuak ere; hala ere, ibilguak eta ibaiertzak lehengoratzeko aurreikusia dago, eta lan horiek ere muturluzearendako habitat egokien kontserbazio egoera eta disponibilitatea hobetuko dituzte.	
Lanaren deskribapena - HELBURUAK	
Muturluze piriniotarraren populazio gune ezagunen kontserbazio egoera eta premia ekologikoak ebaluatzea, bai eta habitataren kontserbazio egoera ere, Leitzaran eta Bidasoa ibaien arroetan, erreferentziatzeko irudi bat izan dezagun eskura bai proiektuaren hasieran, bai bukaeran; horrela, bi irudiak erkatuz, proposatu diren kontserbazio ekintzak eraginkortasunez ebaluatuko ditugu.	
Lanaren deskribapena - AURREKARIAK	
Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Nafarroako Gobernuak azken 30 urte honetan bildutako informazioarekin bat, Batasunaren intereseko espezie hau (Muturluze piriniotarra-Galemys pyrenaicus) Leitzaran eta Bidasoa ibaien arroetan dago, baina banaketa irregularra du, eta azkar ari da gainbehera. Identifikatu den mehatxu faktore nagusia habitataren suntsipena da, populazioen zatikatzeko handia eragin duena. Bestalde, zalantza dago muturluzearen premia ekologikoen alderdi batzuen inguruan, eta horren ondorioz, eta gaur egun eskura dugun informazioa kontuan hartuta, ez dago balorazio zorrotzik egiterik haren habitataren kontserbazio egoeraz. Inguruabar hori are nabarmenagoa da, eskala txikian lan egiten bada ere, horixe gertatzen baita lehengoratzeko lan oso lokalizatuetan (oztopoak ezabatzea, adibidez). Azaldu ditugun gabeziak ikusita, arro mailako informazio zehatza eskuratu beharko genuke, populazioen nahiz habitaten kontserbazio egoeraren ahalik	

eta erreferentziarik zehatzena lor dezagun, proiektuaren hasieran eta bukaeran.

Lanaren deskribapena – **HASIERAKO ETA EGUNGO EGOERA (C ekintzak)**

Lanaren deskribapena – **AURREIKUSITAKO LANAK/JARRAIPENEN DESKRIBAPENA**

Populazioen jarraipena eta okupaturiko eremua ezagutzea: tranpak paratuko dira uretan erdi murgildurik dauden nasen bidez. Halaber, gorozkiak bilduko dira, eta azterketa genetikoa eginez, jakinen dugu espeziea bertan dagoen ala ez. Aurreikuspenen arabera, 2-3 km-ko 20 tartetan (10 Leitzaran ibaiaren arroan, eta 10, Bidasoa ibaiarenean; Baztan, Amezti, Ezpelura, Zeberia, Maringo erreka eta Artesiagako erreka). Honatx zer parametro lortzea dagoen aurreikusia: presentzia, ugaritasuna, eta osaera sexuaren eta dinaren arabera.

Espeziearendako habitat potentzialaren jarraipenari dagokionez, elikadura baliabideak erreferentzia harturik aztertuko da (intsektu urtarren tamaina eta ugaritasuna), bai eta aterpe baliabideak ere (ibaiertzeko landarediaren, ibaiertzen eta ibai-ibilguaren egoera).

Hasierako eta bukaerako ebaluazioak eginen dira.

JUSTIFIKAZIOA Zer lortu nahi dugu? – ESPERO DIREN EMAITZAK

Hona hemen ekintza honetarako espero diren emaitzak:

- Espezieak arro horietan zer **eremu** hartzen duen jakitea, proiektuaren hasieran eta bukaeran.
- **Populazio gune bakoitzaren** kontserbazio egoera ezagutzea, proiektuaren hasieran eta bukaeran.
- Muturluzearen habitataren kontserbazio egoera ezagutzea, proiektuaren hasieran eta bukaeran.
- Lotura duten kontserbazio ekintzen eraginkortasuna baloratzea

